

# MARGARET THATCHERREN GOBERNUALDIA (1979-1990)

---

## SISTEMA NEOLIBERALAREN SORRERA



eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

### **GRADU AMAIERAKO LANA**

HISTORIAKO GRADUA 2020-2021: HISTORIA EKONOMIKOA

EGILEA: BEÑAT ALKAIN LAZKANOITURBURU

TUTOREA: IBAN ZALDUA GONZÁLEZ

## Laburpena

Neoliberalismoa gizarte eta ekonomia garaikidea errotik aldatu duen ideologia da, indarrean dagoen sistema oinarritzeaz gain errealitatearen ikuspegi berri bat ezartzera iritsi dena. XX. mendean sorturiko liberalismo olatu berri horrek, Bigarren Mundu Gerra ostean gailendu zen sistema keynestarrari aurre egin, eta tradizio liberalak proposaturiko indibidualismo eta *laissez faire* doktrinari zentzu berri bat emanaz, nazioarteko kontsentsu ekonomiko berria eratzeko bidea ireki zuen. 1973ko Petrolioaren Krisiak eragindako egoera ekonomiko larriaren ondorioz, ekonomia oso ezberdinak zituzten herrialdeak doktrina neoliberalak aldarrikatutako neurriak hartzen hasi ziren krisialdiari aurre egin eta epe luzeko hazkundea lortzeko. Horien artean lehenengotarikoa, eta European aitzindaria, lan honetan aztergai den Margaret Thatcherren Erresuma Batua izan zen.

1979 eta 1990 artean britainiar lehen ministro izan zenak, estatuaren rol ekonomiko garrantzitsuan oinarritutako *post-war consensus* epealdiko arazo ekonomikoak ideologia neoliberalaren baitan eraldatzeko bidea hartu zuen. Inflazioa, geldialdia eta desindustrializazioa, 1973ko Krisiaren testuinguruan herrialdearen gainbehera (*british decline*) sentsazioa areagotu zutenak, estatuak ekonomian gauzaturiko esku-hartzea murriztu eta merkatu askea eta sektore pribatua mesedetzen zituen politika ekonomikoak bultzatuz konpontzeko hautua egin zuen Thatcherrek. Gauzak horrela, aro berri bat hasi zen britainiar historia ekonomikoan, zeinean gobernuak, eskari agregatua maneiatu baino, sektore pribatua hauspotzeko eskaintzaren aldeko politikak gauzatu baitzituen, azken hori ekonomiaren dinamizatzailatzat jotzen zuen heinean.

Thatcherrek erabateko determinazioa izan zuen bere politikak aplikatu eta herrialdearen eraldaketa lehen momentutik gauzatzeko. 1979an bertan hartutako neurri neoliberalak, inflazioa jaitsi, merkatua liberalizatu eta efizientzia eta produktibitatea areagotzeko xedea zuten, eta aurreko garaietako estatu keynestarrarekin alderatuta errotiko aldaketa ekarri zuten. 1979ko Bigarren Petrolioaren Krisiaren testuinguruan, paradigma aldaketa horrek, inflazioa jaitsi bazuen ere, kostu handiak eragin zituen, egitura ekonomikoa eraldatzerakoan epe luzean errotu ziren gabeziak finkatu baitziren, langabezia batez ere. Hala ere, Malvinetako Gerrak emandako babesarekin, bere politikekin jarraitu eta 1983tik aurrera ekonomia-hazkundeko fase luze batean sartu zen Erresuma Batua, bere gobernaldiaren azken urteetara arte iritsi zena.

## Margaret Thatcherren gobernualdia (1979-1990): sistema neoliberalaren sorrera

Politika neoliberalen gorena izan zen epe hura, zergen eta zor publikoaren jaitsierarekin batera mozkin enpresarialak handitu eta liberalizazioa eta privatizazioak gailurra jo baitzuten; gainera, aspalditik britainiar ekonomiaren geldialdia eragiten zuen produktibitatearen igoera nabaria eman zen, hazkunde ekonomiko luzea finkatzen lagundu eta britainiar ekonomiaren modernizazioa eragin zuena. Dena den, hazkunde horrek eragin zituen desoreka eta desberdintasun sozialak nabariak izan ziren, *community charge* delako zergarekin Thatcherren gainbehera azkartu zen arte handitzen joan zirenak. Honetaz gain, thatcherismoak estatuaren eraldaketa gauzatu zuen, sistema keynestarrean zituen ahalmen eta funtzioak murriztu eta merkatuaren funtzionamendua bermatzeko egitura bihurtu baitzuen. Britainia Handian eredu hori finkatzeaz gain, 1980ko hamarkadatik aurrera nazioartean hedatzen hasi eta indarrean dagoen sistema ekonomikoaren oinarriak finkatu zituen thatcherismoak.

## AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
2. Neoliberalismoaren oinarriak	5
3. Britainiar ekonomia 1970eko hamarkadan	7
3.1. 1973ko Krisia	10
4. Margaret Thatcher: <i>tory</i> iraultzailea?	11
4.1. <i>New Right</i> mugimendua eta Thatcherren gailentzea	11
5. Neoliberalismoaren iritsiera Downing Streetera	12
5.1. Erreforma monetarista eta austeritatea	13
5.2. Pribatizazioak eta merkatuaren liberalizazioa	15
5.3. Sindikatuen afera	16
5.4. Ondorio ekonomikoak	17
5.4.1. Malvinetako Gerraren papera	19
6. <i>Thatcherian Golden Age</i>	20
6.1. Hazkunde ekonomikoa	20
6.2. Pribatizazioen gailurra	22
6.3. 1984 eta 1985 arteko meatzarien greba	23
6.4. <i>Big Bang</i> : Londres nazioarteko kapitalismo finantzarioaren erdigune	24
7. Kriariaren mamuaren itzulera	25
7.1. <i>Community charge</i> eta Thatcherren gainbehera	26
8. Thatcherismoa, benetako iraultza liberala?	27
9. Thatcherren legatua: inoiz joan ez den iraultza	29
10. Ondorioak	30
11. Bibliografia	32

## 1. Sarrera

Margaret Thatcherren gobernualdia (1979-1990) britainiar ekonomiaren historian inflexio-puntua izan zen. Britainia Handian XX. mendean izandako gobernualdirik luzeenak ordura arteko moldeak hautsi eta sistema berri bat eraikitzeko bidea ireki zuen, urteen buruan nazioartean hedatu zena. Eraldaketa horren muinean ideologia neoliberalaren nagusitasunaren aldarrikapena egon zen, keynesianismoaren balioak alboratu, eta thatcherismoak ekonomia eraginkorragoa eratzeko ahalmena egotzi baitzion bere buruari. Gauzaturiko eraldaketa ekonomikoak izan zuen sakontasunak, eta britainiar mugen barruan zein kanpoan izandako eraginak, historia ekonomiko garaikidean gertatutako mugimendurik garrantzitsuenetarikoa bihurtzen du thatcherismoa.

Askotariko ikuspuntutatik lan eginiko historialari eta ekonomialarien lanak iturri bezala erabilia, Margaret Thatcherren gobernualdian ekonomia britainiarrean gertatu ziren aldaketak aztertzea da lan honen jomuga. Horrela, XX. mendeko fenomeno horretan murgildu eta diziplina akademiko honetan baliagarriak izan daitezkeen hausnarketak eta ezagutzak plazaratzeko saio bat izango da honakoa. Xede hori gauzatzeko, lehenik eta behin neoliberalismoaren oinarriak aztertuko dira, thatcherismoa elikatu zuen doktrina aztertzea funtsezkoa baita mugimendua bere osotasunean ulertzeko. Ondoren, Thatcherren gailentzea ahalbidetu zuten 1970eko egoera ekonomikoa eta *New Right* mugimendua ikertuko dira, egoera sozioekonomiko eta kulturalak berebiziko garrantzia izan baitzuten honen goraldian; britainiarren egoera ekonomikoa hobetuko zuen alternatiba bezala aurkeztu baitzuen bere burua, eta gizartearen aldaketa nahiak bere mesedetan erabili zituen.

Jarraian, lanaren muina den gobernualdia bera jorratuko da, neurri neoliberalak lehen momentuan izandako eragin ekonomikoaz gain epe luzean finkatu zuten hazkundearen analisisa gauzatuko baita, eraldaketaren atzean egon ziren elementu guztiak kontuan hartuz. Azkenik, proiektu thatcheristak tradizio liberalarekin izandako desberdintasunak adierazi eta bere legatua aztertuko da, gaiari marko zabalago bat esleitu diona. Oro har, ekonomiaren eraldaketa ulertzeko ikuspuntu eta gai anitzak landuz, Thatcherren gobernualdia ahalik eta zabalago aztertzen saiatu gara.

## 2. Neoliberalismoaren oinarriak

Margaret Thatcherren gobernualdian Erresuma Batuan ezarritako aldaketa ekonomikoak ulertzeko, gatozen jarraian beratu araztu zuen korrantea aztertzeraz, neoliberalismoa hain zuzen. Oinarrian jatorri eta ikusmolde anitzeko ideologia ezberdinak ziren, 1945etik aurrera hegemoniko bihurtutako modelo politiko eta ekonomikoaren alternatiba bat bilatzeko beharrezko baitan antolatu zirenak. Muturreko indibidualismoaren printzipioan eta estatuaren esku-hartze minimoan oinarrituriko mugimendu bat izatetik haratago, fenomeno moderno arrakastatsua da, gizartea atzerabueltarik gabe markatu duena, eta etengabeko garapen eta egokitzapenean dagoena. Doktrina honen eragina nabaria da, alde batetik lehia askea eta jabetza pribatua bermatzeko egitura instituzionalak ezartzen baititu, eta, bestalde, indibiduen bizian merkatuaren logika lehiakor eta indibidualistak finkatzeko gai izan baita, gizarte, erakunde eta fase historiko ezberdinetara moldatu dena (Ahedo & Telleria, 2020: 370).

Bizitza publiko eta pribatuen hegemonikoa bihurtu den ekonomiaren esku-hartzeak, ekonomialari marjinal batzuen ideia izatetik “etika berria” eratu eta munduaren “arrazionaltasun berria” definitzera iritsi dena, bide luzea izan zuen XX. mendean zehar. Mende horren hasieran, liberalismoaren defendatzaileak izan arren, hainbat figura proiektu liberalaren mugak ikusten hasi ziren garai hartako jazoera berriak sumatzen: estatu-burokratizazioa, proletarioaren masifikazioa, Lehen Mundu Gerrak eragindako hondamendiak eta baita 1929ko Depresio Handiaren ondoren eraikitzen joan zen ongizate-estatu eratzeko apustua ere (Bigarren Mundu Gerra ostean eraturiko kontsentsu keynestarrean islatua hain zuzen). Testuinguru horretan, zirkulu liberal batzuek, modelo liberalaren suspertzea *laissez faire*-aren postulatuari zentzu berri bat emanaz gauzatu behar zutela ikusi zuten, zeinean estatuaren rola funtsezkoa izango baitzen (Albarracín et al., 1993: 30-31).

Neoliberalismoaren tesien finkatzea 1938ko abuztuan Parisen gauzaturiko Walter Lippman solasaldian koka daiteke, non hainbat figura garrantzitsu bildu baitziren, hurrengo urteetan neoliberalismoaren oinarria osatuko zutenak: Austriar Eskola (Ludwig Von Mises eta Friedrich Hayek bezalako figurekin) eta alemaniar eskola ordoliberalak<sup>1</sup> hain zuzen. Haien ustez, hasiera batean iraultzailea izan zen liberalismoak,

---

<sup>1</sup> Chicago-ko Eskolak 1970eko hamarkadan hartuko du garrantzia.

## **Margaret Thatcherren gobernualdia (1979-1990): sistema neoliberalaren sorrera**

jabetza eta metaketa eskubideak bermatzeko eta presio interbentzionistei aurre egiteko ezintasuna erakutsi zuen (Ahedo & Telleria, 2020: 373). Mendebaldeko demokrazietan ematen ari zen estatuaren indartzeak “joputzarako bidea” irekitzen zuen (Hayekek zioen legez), eta lehiakortasunaren eta askatasun indibidualaren printzipioak kolokan jartzen zituen. Bilera hartatik abiatuta neoliberalismoaren oinarri teorikoa osatuko zuten eskolek, proiektu neoliberalaren muina honako ideian ezarriko zuten: estatuaren dimentsio soziala alboratu, eta merkatuaren funtzionamendua, lehia askea eta jabetza pribatua bermatzeko tresna bihurtu behar zen. Liberalismo berri horren paradoxa nagusia bere sorreratik bertatik gauzatu zen, hau da, askatasun indibiduala goraiatu arren estatuaren interbentzionismoaren aurrean, askatasun modelo hori botere publikoek gauzaturiko arautze finko baten eskutik etorri behar zela ondorioztatu zuten (Albarracín et al., 1993: 34).

Neoliberalismoak aldarrikatzen dituen doktrina nagusiei dagokionez, eskola bakoitzak hein handi ala txikiagoan defendaturikoak, sei arlotan bildu daitezke. Lehenik eta behin, langileen soldatei eginiko kritika funtsezkoa da politika neoliberallean, eta enplegua sortzeko enpresek soberakina sortu eta berau berrinbertitzeko premisan oinarritzen da ikuspegi hori. Soldaten hazkundera enpresarien mozkin-marjina murriztu eta, ondorioz, ekonomiaren funtzionamendua oztopatzen duela kontsideratzen dute. Bigarrenik, zerbitzu sozialekiko kritika legoke, gehiegizko gastuaren eraginez defizit publikoa sortzen duena, ongizate-estatuaren pentsamoldea errotik hautsiz. Hirugarrenik, zerga-kontraerreforma beste elementu nabari bat da, modelo keynestarrean errentaren gaineko zuzeneko zergek garrantzia izatetik zeharkako zergen nagusigora igaroz. Horrela, kontsumoa indartzearen bidez ekonomia eta enpresak martxan jarri eta zerga-bilketa handitzen dela argudiatzen da; gainera, aberastasun handiagoa sortzeko birbanaketa eraginkor bat eragingo luke (Ahedo & Telleria, 2020: 399-400).

Laugarrenik, lan-merkatuaren liberalizazioa politika neoliberal erabiliena da; lan-merkatu zurrun eta egonkor batek enpresek behar duten dinamismoa oztopatzen du, desarautzeak ekonomia-hazkundera bermatzeko malgutasuna eskainiz. Bosgarren ezaugarria, eta oro har neoliberalizazio prozesuetan ezartzen den lehen neurria, sektore publikoaren privatizazioa da. Estatuaren gainkarga arintzeko beharrarekin eta merkatuaren nagusigoan oinarrituta, lehengai eta industria sektore estrategikoak privatizatzea ondorio saihestezina izan da. Estatuaren arabera ezberdintasunak eman

dira pribatizazioaren eredu eta sakontasunean, baina ekonomiaren efizientzia bilatzeko eta pizgarriak sortzeko asmoarekin bultzatu izan dira. Azkenik, monetarismoa politika neoliberalen elementu garrantzitsua da: Milton Friedman ekonomialariaren argudioetan oinarrituta, epe luzean egonkortasun ekonomikoa lortzeko herrialde baten diru kantitatea maneiatzeak berebiziko garrantzia du. Estatu keynestarretako diru-politika hedagarriak eragindako inflazioari aurre egiteko, diru-politika murriztailea inflazioaren aurka borrokatzeko tresna nagusia da; berebiziko garrantzia hartu zuen tesi honek 1970-1980ko hamarkadetako “estanflazio” testuinguruan (Albarracín et al., 1993: 32).

Eskola neoliberal ezberdinen arteko ikuspuntuak gorabehera, teoria hauek moldakortasun handia erakutsi dute herrialde eta gizarte ezberdinetara egokitzeko, eta haien proiektua gauzatzeko abiapuntua 1973an gertatu zen Petrolioaren Krisiaren testuinguruan sortu zen, modelo keynestarra kolokan jarri zuena. Bigarren Mundu Gerraren amaieratik Mendebaldeko herrialdeetan gertatu zen hazkunde emendatuaren ostean, 1973an LPEEko herrialdeen petrolio-esportazioa murrizteak krisi latza eragin zuen. Energia-iturriaren garestitzearekin, produkzioaren, produktibitatearen, kontsumoaren eta enpresen irabazien jaitsiera nabaria gertatu zen; ondorioz, langabeziak gora egin eta BPGaren hazkundearen jaitsiera jazo zen herrialde guztietan. Gainera, “estanflazioa” deituriko fenomeno berria sortu zen, ekonomiek geldialdia izan zuten aldi berean inflazio joera orokor bat jazo baitzen, ordura arte sekula ezagutu ez zena (Maddison, 1997: 118-119) (Segura, 2013: 398).

Krisi giro hori testuinguru ezin hobea bihurtu zen modelo keynestarrari akabera eman eta neoliberalismorako bidea eraikitzeko: lehen ezartzea, egile batzuen arabera, Txilen Pinocheten estatu-kolpearekin gertatu zen, eta, ondoren, lan honetan aztergai den Margaret Thatcherren Erresuma Batuan (1979-1990). *Burdinazko damak*, Ronald Reagan AEBko presidentearekin batera, aitzindaria izan zen mugimenduarekin nazioarteko sistema ekonomikoa eraldatzea lortu zuen, ondoren aztertuko den bezala.

### **3. Britainiar ekonomia 1970eko hamarkadan**

Nazioarteko giro mesedegarriari jarraiki, Erresuma Batuak Bigarren Mundu Gerraren ostean politika keynestarrak aurrera eraman eta “gerraosteko kontsentsua” (*post-war consensus*) izeneko garaia ireki zen. Britainiar gobernuak, Altxor Publikoaren eta



## Margaret Thatcherren gobernualdia (1979-1990): sistema neoliberalaren sorrera

Ingalaterrako Bankuaren babesarekin, ekonomian esku-hartu eta politika publikoak gauzatu zituen ekonomiaren hazkunde jarraitua lortzeko helburuarekin. Neurri horien bitartez, *output*-ak eta enplegua indartu nahi izan ziren, baita inflazio-tasa baxua eta ordainketa-balantza onuragarria mantendu ere. Langabezia-tasa baxua mantentzea garrantzitsua bihurtu zen gerraosteko Britainia Handian, eta gainera, gobernuak eskari agregatua indartzeko jarrera izan zuen epe horretan, ziklo ekonomikoak arindu eta herrialdearen oreka ekonomikoari laguntzeko asmoz (Oliver & Pemberton, 2006: 7). Sistema osoa zerga zuzenen nagusigoan eratuta zegoen, eta gastu publiko nabariarekin eta truke-tasa finko batekin mantentzen zen; horrekin batera, estatuak ekonomia arautzeaz gain enpresa publiko askoren jabegoa zuen sektore askotan: trenbideak, airelineak, meatzaritza, industria astuna, elektrizitatea, erregaiak...

1945etik 1970eko hamarkadara arteko epean, ongizate-estatua eraikitzearekin batera, hazkunde jarraitua izan zuen Britainia Handiak: BPGaren hazkunde jazo zen urte horietan (%2,4 batez beste 1950 eta 1973 artean), baita BPG per capitarena ere, Mendebaldeko beste herrialde batzuen ekonomiak baino erritmo txikiagoan dena den. Era berean, langabezia-tasa baxu mantendu zen epealdi osoan zehar, %1,8 eta %3,8 artean, eta inflazio-tasak, desegonkorra izan bazen ere, %5 inguruan eutsi zion oro har. Sindikatuek indar handia zuten testuinguru batean, Clement Attlee laboristak 1945ean ireki zuen bide keynestarra (1948an National Health Service-ren -NHS- sorreran islatua) ondoren etorri ziren gobernu kontserbadore zein laboristek oso aldaera gutxiarekin errespetatu zuten, *post-war consensus* delakoa gobernuz gobernu berretsiz. Hala ere, bi fenomeno oreka hori hausten joan ziren: alde batetik libera esterlinaren krisiak eta horiekin loturiko ordainketa-balantzaren desorekak, eta, bestalde, gerraosteko desindustrializazio prozesu jarraitua (Glynn & Booth, 1996: 192-196).

1944an Bretton Woods-eko Akordioak sinatu eta gero, libera esterlina nazioarteko diru-sistema berrian sartu zen, zeinean urre-patroia berrezarri eta nazioarteko dibisen truke-tasa finko bat ezarri baitzen, libera bigarren dibisa nagusia izanik nazioarteko trukeetarako. Hala ere, denborarekin argi geratu zen nazioarteko diru-sistema horrek defizit handia eragiten zuela britainiar kanpo merkataritzan: lehiakortasun maila eskasa eta etengabeko diru-injekzioak behar zituen industriak desorekak eragiten zituen ordainketa-balantzan, eta baita liberaren krisi ugari ere kausatu. Harold MacMillan kontserbadorearen eta Harold Wilson laboristaren gobernaldietan (1961-1970)

### Margaret Thatcherren gobernualdia (1979-1990): sistema neoliberalaren sorrera

ordainketa-balantza indartu eta bide batez libera esterlina babesteko ekonomia planifikatzen saiatu baziren ere, 1964an defizita oso nabarmena zen (800 milioi libera inguru), eta, 1966rako, eutsiezina egoera; azkenean NDFtik 3 bilioiko kreditua eskuratu eta libera %14 devaluatu behar izan zuten, 2,8 dolarretik 2,4ko truke-tasara igaroz (Oliver & Pemberton, 2006: 19).

Liberaren egoera orekatu eta ordainketa-balantzan superabita izan bazen ere, 1970ean *tory*-ek Edward Heath buru zela gobernua berreskuratu zutenean, ekonomia planifikatzearen porrotetik ikasi eta planteamendu zeharo ezberdina zuten (Thatcherrentzako oinarri sendoa izango zena): ez zuten ekonomiaren plangintzarik gauzatu nahi, ezta gobernuaren agindupean ekonomiaren hazkundera bultzatu ere; aitzitik, soldaten politika malguagoa bultzatu nahi zuten, eta horretarako sindikatuen indarraren murrizketa funtsezkoa zen. Horretaz gain, zergak jaitsi eta ekonomia britainiarraren lehiakortasuna indartzearen aldeko apustua egin zen, 1973an Ekonomia Erkidegoan sartzean Europako ekonomiekin lerrotatuz. Hala ere ez zen gastu publikoa mugatu edota enpresen desnazionalizazioa bultzatu, eta gobernua enplegu betearekin konprometituago zegoen inflazioa kontrolatzearekin baino. Industriaren jauzi berri bat bultzatzeko lehiakortasuna eta *laissez faire* politika argiago bat gauzatu nahi bazuten ere, 1972ko langabeziaren hazkunderarekin (milioi batera iritsi zen) gastu publikoa handitu eta politika keynestarren itzulera bat jazo zen (Oliver & Pemberton, 2006: 22-24).

Desindustrializazioa ere hazkunde orokorreko epe horretan agertu zen bigarren fenomeno garrantzitsua izan zen, Thatcherrekin azken burura iritsiko zen prozesua. Iraganean munduko lantegia izan zen herrialdean, industria astunean zein manufakturetan Britainia Handiak nazioartean zuen pisua izugarri jaitsi zen; *outputak* hazkunde eta merkatuan zuten garrantziaren aldetik beste herrialde askoren azpitik zeuden 1973rako. Britainiar Inperioaren desegitearekin, irlak bere domeinuetan zeukan preferentzia ahuldu eta nagusigoa galdu egin zuen merkatu haietan. Enpresentzat kolpe latza izan zen, eta langileen soldaten igoera emendatu baten testuinguruan, inbertsio pribatuaren jaitsiera faktore garrantzitsua suertatu zen industriaren gainbeherarako. Lehiakortasun, berrikuntza eta produktibitate maila eskasak izan zituzten britainiar enpresek epe horretan, eta gastu publikoaren bidez finantzatzea funtsezkoa izan zen horiek biziraun eta enplegua ahal zen neurrian bermatzeko (nahiz eta jaitsi egin zen).

Industriaren galerak britainiar ekonomia guztiz aldatu zuen, eta 1970-1980ko hamarkadetan sektore horren behin-betiko gainbehera gertatu zen (Kitson & Michie, 1996: 1-4).

### **3.1. 1973ko Krisia**

Oparoaldi ekonomiko luzearen garaia bukatu zen 1973ko Petrolioaren Krisiaren eztandaekin, eta Britania Handia kinka larrian sartu zen. Erregaiaren murrizketak kolpe latza suposatu zuen britainiar ekonomiarentzat, produkzioa zein ekoizpen-sarea asko mugatu baitzen. Ipar Itsasoan aurkituriko petrolio-putzuek ez zuten egoera arindu (kanpo zorra ordaintzeko erabili baitzen), eta estanflazioaren fenomeno berriarekin egoera okertzen joan zen: 1973tik inflazioa geroz eta altuagoa zen herrialdean, BPGaren erorketa (%0,7) eman zen krisiak eztanda egin ondoren, eta defizit publikoa ere handitu egin zen (%4,6), langabezia-tasa ahalik eta baxuen mantentzeko helburuarekin gauzatu zena. Egoera larri horretan, Heathen gobernuak 1974an *Three-Day Week* bezalako neurriak hartu zituen, meatzarien greben testuinguruan: kontuan hartuta ikatz bidezko zentral elektrikoak zirela herrialdearen energia-iturri nagusia, energia aurrezteko eta ikatz stock-a ez agortzeko hiru eguneko lanaldia proposatu zuen gobernuak industria arloko enpresentzat (Morgan, 2017: 1-4) (Segura, 2013: 404).

Halako neurriek (langileen soldata jaitsi zutenak) eta inflazioarekin erosahalmena galtzeko arriskuak, ondoez handia eragin zuen langileengan, eta grebak oso ohikoak bihurtu ziren, batez ere National Union of Mineworkers sindikatukoena. Era berean, Heathen Alderdi Kontserbadoreak, langilegoaren aldeotasuna lortzeko eta 1974ko hauteskundeak irabazteko *Barber boom* delakoa antolatu zuen: gastu publikoaren eta langileen soldataren igoeraren aldeko apustua egin zuen; horrek inflazioaren igoera nabarmena eragin zuen (1975ean %23,3ra iritsi zen), baita ordainketa-balantzan desorekak eta liberaren beste krisi bat sortu ere. Hala ere, 1974an Wilsonen gobernu laborista berria iritsi zen boterera (James Callaghanek jarraitu zuena 1976an), eta egoerari aurre egiteko *Social Contract* deituriko epea ireki zen, sindikatuei Heathen gobernuak kendutako indarra berrezarri eta langileen soldaten hobetzeak ekarri zituena (Morgan, 2017: 5).

Politika horien bidez 1976tik hazkundearen bidea ireki eta inflazioa jaitea lortu zuen gobernu laboristak, 1978ko %8,3ra arte. Hala ere, langabezia-tasak altu segitu zuen (%6

inguruan), eta ordainketa-balantzaren desorekak jarraitu eta liberaren beste krisi bat jazo zen 1976an; egoera are gehiago okertu ez zedin, azkenean NDFk 3,9 bilioiko kreditua onartu behar izan zuen aurrekontuak murriztu eta diru-jaulkipena mugatzearen baldintzapean. Hala ere, egoera okertzen hasi zen berriz, 1978rako inflazio-tasa %15etik gora igo baitzen eta 1,5 milioi langabe baitzeuden. Atsekabe orokor hori 1978 eta 1979 arteko *Winter of Discontent* deiturikoa islatu zen: sindikatuek gobernuari langileen aldeko politikak ezartzeko aldarria egiten zioten, inflazioaren igoerarekin kaltetuta atera baitziren soldata errearen arloan, eta gobernuaren aurkako greba ugari izan ziren. Gobernuari kontrola mantentzea geroz eta gehiago kostatzen ari zitzaion, herrialdearen gainbehera sentsazioa areagotu zuena. Testuinguru horretan, politika keynestarren oniritzia zeharo jausi eta ordura arteko moldeak hautsiko zituen aldaketa baten beharra oso zabaldua zegoen britainiar gizartean (Morgan, 2017: 6-7).

## **4. Margaret Thatcher: *tory* iraultzailea?**

### **4.1. *New Right* mugimendua eta Thatcherren gailentzea**

Krisiak eta egoera ezegonkorrak Alderdi Kontserbadorearen barruan sortu zuen ondoezak, 1970eko hamarkadatik indarra hartzen joan zen sektore baten bultzada erabakigarria eragin zuen, *New Right* deiturikoa. *Tory*en barneko multzo bat, Alderdi Kontserbadoreak *post-war consensus* delako garaian izan zuen jarrerarekin oso kritikoa agertu zen, Britainia Handiaren nazioarteko posizioa kaltetzen utzi zutela uste baitzuten. Keynesianismoa britainiar tradizio kontserbadorearen aurkakotzat jotzen zuten, eta *establishment*-aren parte bihurtu ziren politikei aurre egiteko jardun zuten, erakundeetara salto egin aurretik arlo ideologikoan lan eginez. Keynesianismoa Inperioaren desagerpena eta herrialdearen gainbehera (*british decline*) bizkortu zuen politika-multzoa zela uste zuten; gainera, ezinbestean kolektibismora eramango zuten (Gamble, 1994: 34-36).

*New Right* korrontea aurretiazko “eskuin” mugimenduetatik desberdindu zuena, modelo berri baten proposamena izan zen: merkatu askearen defentsa sutua egiten bazuten ere (tradizio liberalarekin bat zetorrena), kontserbadurismoak aldarrikatutako estatuaren autoritatea defendatzen zuten. Ekonomiaren lehiakortasuna eta askatasuna, gizartean ordena eta balio tradizionalak berrezartzeko ideia nazional indartsu batekin uztartu zuen *New Right* mugimenduak; nazionalismo sutua liberalismo klasikoarekin bateragarria ez

## Margaret Thatcherren gobernualdia (1979-1990): sistema neoliberalaren sorrera

bazen ere, egile neoliberalak merkatua defendatzeko egitura baten beharra ikusi zuten, eta beraz eskuin berri horren eta ideia neoliberalen arteko hitzartze bat gertatu zen. *New Right* arentzat, estatuaren helburua ekonomia askea bermatzea zen era berean, bere eskumenak, subiranotasuna eta ordena defendatzearen alde agertu zen era autoritario batean, eremu nazional zein nazioartekoan (Gamble, 1994: 38).

*New Right* fakzio horren burua Grantham-eko dendari baten alaba zen, Margaret Thatcher hain zuzen, Alderdian denbora luzez pisua irabazi eta Heathen gobernuan Hezkuntza Ministro izatera iritsi zena. Bere jatorri umilak Alderdi Kontserbadorearen barruan zeuden lurjabe handiekin talka egiten zuen, azken horiek muturreko liberalismoak haien estatusa eta posizioa galaraziko ote zizkien beldur zirelako. Sektore minoritarioa izatetik *toryen* barruan nagusigoa lortzeko pausoa 1975ean gertatu zen: egoera ezegonkorrean aldaketaren lider bezala aurkeztu zuen bere burua, eta bere mezuak babes handia izan zuen; hainbeste ezen lehenengo bozketan Edward Heath bera garaitu eta bigarren bozketan Alderdi Kontserbadorearen buruzagitza eskuratu baitzuen (Cook & Stevenson, 1996: 66). Oposizio-lanetan sindikatuen aurkako borroka bere aldarriaren zutabe bihurtu zuen, eta 1978tik aurrerako egoera lagungarria egin zitzaion. Callaghan lehen ministroak *Winter of Discontent* epean sindikatuen gaineko kontrola galdu eta bere babesa ahultzen joan zen; sistemak egoera hobetzeko ezintasuna erakutsi zuen, Thatcherri mesedegarria egin zitzaiona. Azkenean, 1979ko maiatzeko hauteskundeetan Thatcherrek garaipen zabala eskuratu eta proiektu neoliberalak ezartzeko atea parez pare ireki zitzaion (Thatcher, 1995: 384-388).

## 5. Neoliberalismoaren iritsiera Downing Streetera

Hamarkada bat baino apur bat gehiagoz gobernatu zuen Margaret Thatcherrek, hiru gobernualdi bete zituen Britainia Handiaren gidaritzan, 1979 eta 1990 artean hain zuzen. Eraldaketa neoliberalak gauzatzeko aukera izan zuen urte haietan, Europako gainontzeko herrialdeetan zein nazioartean hegemonikoa bihurtu den sistemaren hastapena izanik. Gobernura iritsi bezain pronto gauzatutako erreformek, eskaintza mesedetzeko jomuga zuten (*supply-side economics*), eta gizabanakoaren eta merkatuaren askatasuna bermatu eta estatuaren botere eta asistentzia-ahalmena murriztera bideratu ziren. Horren ondorioz, Britainia Handiaren integrazioa nazioarteko

ekonomian handitu egin zen epe horretan; herrialdea koiuntura globalen menpekoago bihurtu zen, gizarte zein ekonomian eragin zuena (Gamble, 1994: 107).

### **5.1. Erreforma monetarista eta austeritatea**

Thatcherren gobernualdiaren lehen fasean inflazioaren aurkako borroka lehenetsua bihurtu zen, eta politika monetarista orekatu eta zorrotza gauzatzea izan zen horrekin amaitzeko neurria. Altxor Publikoaren babesarekin, diru-jaulkipena eta gastu publikoa murriztea eta zerga-sistema eraldatzea politikarik garrantzitsuenak izan ziren, eta estrategia nagusiak honakoak izan ziren: diru-eskaintzaren hazkunde-tasa moteltzea, defizit publikoa eta ondorioz zor publikoa jaitea, dibisa nazionalaren truke-tasaren balioa handitzea, eta azkenik langabezia bere tasa naturalera mugatzea, inongo diru-injekziorik gabe. Izan ere, gastu publikoaren ondorioz sorturiko inflazio- eta interes-tasa altuek eta epe luzerako ziurgabetasunak, *crowding-out effect* deiturikoa sortu zuela irizten zuen gobernuak, inbertsio pribatua errotik murrizten zuena, ekonomia martxan jartzeko funtsezkoa haien ustez (Magazzino, 2010: 68).

1979an bertan eginiko aurrekontuetan, gizabanakoa agente ekonomiko nagusia izatearen aldarrikapena islatu zen, eta herrialdean elkartruke ekonomikoak, inbertsioak eta aurrezteak handitzeko norabide argi bat markatu zen. Zuzeneko zergen jaitziera iragarri zen, PFEZa batezbeste %33tik %30era eta errentarik altuenentzako zerga %83tik %60ra jaitsi, eta desgrabazioak (*tax allowances*) %9 handitu ziren; era berean, murrizketa horiek finantzatzeko BEZa bikoiztu egin zen, %8tik %15era pasaz, eta luxuzko produktuen zerga %12,5etik %15era igaro zen (Gamble, 1994: 108). Horretaz gain, liberalizazio ekonomikoaren eskutik etorri ziren neurri horiek, ekonomiaren gaineko kontrolak soldata, prezio, baimen, dibidendu eta dibisa-elkartrukeen mugak kenduz laxatu baitziren, kapital mugimenduen gainekoa bezala. Horretaz gain, inflazioaren jaitziera lortzeko batetik diru-eskaintzaren hazkunde-tasa jaitsi egin behar zen, eta bestetik funtsezkoa zen aurrekontu-defizita biziki murriztea, zerga berriekin ordaindu baino, gastu publikoa nabarmenki jaitsiz lortu beharrekoa. Bi faktore horiek hazkunde ekonomiko estruktural eta iraunkorra lortzeko funtsezkoak ziren.

Diru-eskaintzaren helburuak xedatzeko, 1980an aurkeztutako *Medium Term Financial Strategy* (MTFS) plana izan zen politika neoliberalaren giltzarri nagusia. Bertan, hurrengo urteetan gauzatuko ziren diru-eskaintzaren murrizketak argitaratu ziren, urtero

### **Margaret Thatcherren gobernualdia (1979-1990): sistema neoliberalaren sorrera**

%4koak izango zirenak, eta baita gutxieneko interes-tasa handitzea adierazi ere, %12tik %14ra pasa zena. Hala ere, kapitalen irteera eta sarreraren liberalizazioak banku britainiarrei kanpoan maileguak ematea ahalbidetu zien, nazioarteko liberaren erreserbak handitu egin zituen; horri erantzunez, Thatcherren administrazioak %17ra igo zuen liberaren interes-tasa. Horren ondorioz, gobernu britaniarraren politikak, Ipar Itsasoan petrolio esportazioen gorakada baten testuinguruan 1980ko hamarkadatik aurrera, liberaren balioaren hazkundera ekarri zuen: 1975ean 1,75\$, 1979an 2,12\$ eta 1980an 2,33\$ (Champroux & Sowels, 2015: 140).

Bestalde, gastu publikoaren murrizketa kudeatu nahi izan zen *Public Sector Borrowing Requirement* (PSBR) edo aurrekontu-defizita mugatuz, oreka fiskala lortzeko asmoarekin egina, hura funtsezkotzat jotzen baitzen. 1979ko aurrekontuan jadanik eskualde-garapenean, arlo energetikoan eta inbertsio publikoa jasotzen zuten sektoreetan murrizketak egitea proposatu zen, baita langabezia-, gaixotasun-, amatasun-, eta ezgaitasun-laguntzak %5 jaitea ere. Horretaz gain, NHSko botiken errezeta garestitu egin zen, eta elektrizitatearen prezioa %5 eta gasarena %10 igotzea erabaki zuen gobernuak. Oro har, gastu publikoa 1500 milioi liberatan murrizteko konpromisoa hartzeaz gain, zor publikoa 8250 milioi liberatara jaitea planteatu zuten. Neurri horiek eragindako gabeziak merkatuaren funtzionamenduak berak konponduko zituen ustea zuen gobernuak, eta erreforma horiekin epe ertainean langabezia eta hazkunde iraunkor bat bermatuko zela (Maynard, 1988: 104-105).

1981erako egoera larria zen herrialdean langabezia hazkorraren ondorioz, eta gobernuak gastua murriztu zuen testuinguruan, kontsumoa izugarri jaitsi zen: zeharkako zergetatik jasotako diru-kopuruak ez zuen zorra arintzeko helburuak betetzen utzi. Hala ere, gauzaturiko politikei (zertxobait moldatuz) eutsi eta zergak igotzea izan zen kabinetearen erantzuna; 1945etik bizi izandako epealdirik gogorrenetako batean, gobernuaren lehentasuna oreka fiskala izan zen eskariaren jaitsierari aurre egitea baino. Zamatutako zerga horien artean alkohola edota tabakoa bezalako produktuenak egon ziren, eta desgrabazioak ere igo egin ziren. Hori gutxi balitz, kanpoko ikasleentzat tarifak handitu, eskoletako otorduetarako eta estatuaren kontrolpeko etxeen alokairua igo, eta unibertsitate plazak jaitsi ziren. Bestalde, enpresen egoera baretzeko, amore eman eta libera esterlinaren interes-tasa %14ra jaitsi zuten, eta gainera industriaren

enpresarik funtsezkoenei (langile askotakoei oro har) diru-laguntzak ematen hasi ziren; ondorioz, gastu publikoaren jaitsiera lorrezina izan zen (Bolick, 1995: 539-540).

## **5.2. Pribatizazioak eta merkatuaren liberalizazioa**

Estatuaren kontrolpean zeuden askotariko sektoreetako enpresak pribatizatzea proiektu neoliberalaren beste oinarrietako bat zen, merkatu askearen dinamikan geroz eta unitate ekonomiko gehiago sartuz (liberalizazio prozesu batekin batera) ekonomia-hazkunde iraunkor bat jazoko zela argudiatzen baitzuten. Gobernu thatcheristak pribatizazioak hasieratik gauzatu nahi izan zituen sektore anitzetan, eta 1979ko ekainean bertan National Enterprise Board, industriari inbertsioak antolatzen zituen erakundea, partzialki pribatizatu zuen, gobernuak 100 milioi liberatako balioa zuten aktiboak saldu zituelarik. Petrolioaren sektoreari dagokionez, liberalizazio eta pribatizazio saio bat eman zen: 1980an British National Oil Corporation, petrolioa erauzteko konpainia nazionala, Ipar Itsasoan izan zitzakeen interesak utzi eta esplotazio-eskumenen zati bat agente pribatuei saltzera behartu zuen Thatcherren gobernuak; gainera, British Petroleum enpresan estatuak zituen aktiboen %5a saldu zuen (Maynard, 1988: 87-89).

Estatuaren gastuen karga arintzeko asmoarekin jarraituz, 1979 eta 1980 artean International Computers Limited (ICL), Fairey Holdings eta Ferranti konpainiak saltzeko agindua eman zuen gobernuak. Horretaz gain, British Aerospace Corporation-en %52a saldu eta kanpoko inbertsiora ireki egin zuten, baita British Sugar Corporation erakundearen %24a eta Cable and Wireless enpresaren %49a saldu ere. Etxebizitzaren sektorean ere antzerako prozesua gertatu zen, Thatcherrek estatuarenak ziren etxeak langileei era eskuragarrian erosteko aukera zabaldu baitzien; horrela, alokairuan bizi zen klase baxuko jende asko jabe egin eta merkatuaren dinamikan barneratu zen, erosteko hautua alboratu zutenei alokairua igoz. Liberalizazio prozesuaren beste bi adibide British Post Office eta British Telecommunications enpresak ditugu, estatuak haien monopolio-eskubidea hautsi egin baitzuen. Dena den, oro har desnazionalizazio prozesua mugatua izan zen lehenengo gobernualdi honetan, 1979 eta 1980 artean urteko 377 milioi libera eta 1980 eta 1981 arteko epean urteko 405 milioi liberako salmentekin (Gamble, 1994: 112-115).



### 5.3. Sindikatuen afera

Thatcherrentzat sindikatuen eraginaren aurkako borroka bere erreformak burutzeko elementu zentrala zen, eta Britainia Handiaren gidaritza eskuratuta gobernuak argi utzi zuen gastuak jaisteko murrizketak gauzatzeko prest zegoela, eta errentagarritasuna bilatu eta laguntza publikoak ekiditeko edozein politika babestearen alde zegoela. 1980ko *Employment Act* delakoa sindikatuetikiko aurkakotasun horren lekuko dugu, piketeak debekatu eta greba deialdia egiteko langileen arteko oniritzi handiagoa ezartzen zuena. Hala ere, egoera ekonomiko kaskarreko testuinguruan, protestak ekiditeko kontu handiz ibili zen Thatcherren gobernua, eta kostu politiko txikia izango zuen sektore edo enpresatan ezarri zituen murrizketak, konfrontazio zuzenik eragingo ez zutenak. Hori dela eta, proiektu neoliberalaren aldekoek lehen gobernualdian sindikatuen aurka gauzaturiko erreformak ez zituzten begi onez ikusi, beharrezkoak baino askoz ere sakonera txikiagokoak zirela uste baitzuten (Gamble, 1985: 192).

Krisi latz hartan gizartearen sektore zabal bat inolako laguntza ekonomikorik gabe gelditzeko arriskuarekin<sup>2</sup>, sindikatuak (batez ere industria sektorekoak, indartsuenak baitziren) antolatzen hasi ziren, eta hainbat greba-deialdi aldarrikatu zituzten. Horietako lehena 1980ko British Steel Corporation-ena izan zen, estatuarena zen altzairu-fabrika gobernuak langileen murrizketa bat proposatu zuenean, 50 urtetan lehen aldiz altzairu-langileek eginiko greba deitu baitzen. Gobernuak hasiera batean jarrera irmoa erakutsi bazuen ere, urtebeteko grebaren ostean amore eman eta diru-laguntza masiboak onartu behar izan zituen. Beste adibide bat 1975ean partzialki nazionalizatutako British Leyland automobilgintza enpresarena izan zen: patronalak proposaturiko kaleratzeak, planten itxierak eta lanaldi aldaketak langileen antolaketa eragin zuten, gobernuak errepresioaren bitartez jazarri zuena. Enpresaren egoera ekonomikoa txarra bazen ere, porrot ekonomikoa deklaratu eta ahal bezain laster aktiboak saltzea (galerak zertxobait errekupeartzeko) ez zen aukera bideragarria suertatu, kaleratze masiboek egoera okertuko zutela argi baitzegoen (Magazzino, 2010: 81-82).

Sindikatuaren boterea saihesteko, baina merkatuaren dinamika aplikatu eta lehiakortasuna areagotzeko neurri bakanetakoa, enpresa pribatuko teknikari eta langileak enpresa publikoetan egokitzea izan zen, sindikatuen aurkako borroka zaratarik atera gabe ahalbidetu zuena. Gobernuak industriaren arazoan funtsean sindikatuen boterea

---

<sup>2</sup> Horretaz gain, langilegoaren soldata erreala %4,3 jaitsi zen 1980 eta 1981 artean.

identifikatzen bazuen ere (soldatak maila naturala baino altuago mantenez baitzitezkeen, inbertsioa eta produktibitatea oztopatuz), sektorea errentagarriagoa eta lehiakorragoa egiteko ardura hartu zuenean, laguntza masiboak izan ziren lanpostuak mantentzeko bide bakarra, egoera ekonomiko kaskarrean langabezia igotzeak ondorio katastrofikoak izango baitzitezkeen (Gamble, 1985: 194).

#### **5.4. Ondorio ekonomikoak**


1979tik 1983rako epean Thatcherren *monetarist revolution* delakoak gobernuaren helburu nagusia zen inflazioaren jaitsiera lortu bazuen ere, hori lortzeko kostu handiak eragin zituen ekonomia britainiarrean. Diru-politika murriztaileak ez zuen hasiera batean berehalako eraginik izan, eta inflazio-tasa 1979tik handitzen joan zen 1980ko maiatzeko %22kora arte, gobernuak aldarrikatu zuen helburutik oso urruti; hala ere, pixkanaka jaisten joan zen, eta 1983rako %4,3ra murriztu zen, ekonomiaren hazkundera bermatzeko nahitaezko baldintza gobernuaren ikuspuntutik. 1982tik aurrera jazotako inflazio-tasaren jaitsiera hori diru-eskaintzaren hazkunderarekin batera eman zen<sup>3</sup>, ekonomia gobernuaren esku-hartzerik gabe hazten ari zen seinale, produktibitate-tasen igoera soldata-dinamika moderatu bati loturik egon zelarik. Horretaz gain, erreforma gogor horiekin zor publikoa 3600 milioi dolarretan arindu zuen Thatcherren gobernuak, epe luzera inbertitzeko (eta teknologia berriak inportatzeko) giro hobea sortuko zuen baldintzetako bat izanik (Glynn & Booth, 1996: 291-292).

Hala ere, MTFSn hartutako erabakiek, 1979an eztanda egin zuen Bigarren Petrolioaren Krisiaren testuinguruan, berehalako ondorio ekonomiko negatiboak eragin zituzten beste alor askotan. Langabeziari dagokionez, etengabe hazi zen epe horretan, 1983rako 3,3 milioira iritsiz, inoiz erregistraturiko tasarik handienarekin, populazio aktiboaren ia %12a zena (eta epe luzean jarraitu zuena). Horretaz gain, liberaren balio handitzeak nazio-produktu gordina (NPG) biziki jaitea eragin zuen, esportazioek %2ko jaitsiera eta inportazioek %2,4eko hazkundera izan baitzuten; era berean, inbertsioak jaitea eragin zuen, %1,5eko batez bestekoa lehen gobernualdian. 1979 eta 1981 artean BPGa batez beste %3,6 murriztu zen, eta soilik 1982tik aurrera egon zen hazkundera britainiar ekonomian, epe luzean finkatu zena (Magazzino, 2010: 74).

---

<sup>3</sup> Aktibo finantzarioak zituztenen mesedetan egin zena, %5-10 artean handitu baitzen haien erosahalema, epe luzera Londreseko burtsan kapital metaketa handia eragin zuena.

### 1. grafikoa: Inflazio- eta langabezia-tasaren arteko alderaketa (1979-1983)



Iturria: Glynn & Booth (1996: 292), eta Magazzino (2010: 74); egilearen lanketa.

Bestalde, industria-sektorearen jaitsiera bereziki nabaria izan zen, historiako galera epe handiena irekiz. Diru-politika murriztaileak liberaren balioaren hazkundera eragin zuen, liberalizazio prozesu baten garaian enpresen esportazioak (eta ordainketa-balantza) kaltetu egin zituen. Horren ondorioz kanpoko merkatuetatik produktu asko iritsi ziren Britainia Handira, eta bertako manufaktura-industria biziki kalteturik atera zen: produkzioa %15 jaitsi zen lehen agintaldian, inbertsio-maila %36, eta sektoreak %20ko lehiakortasun maila galdu zuen. Horretaz gain, beste sektore batzuk, ingeniariak, elektrikoak, ehun-industriak eta arropagintzak besteak beste, %25eko galerak izan zituzten. Garai zailak izan ziren enpresentzat, 1980an esaterako 1966 eta 1979 artean baino lanpostu gehiago galdu ziren, eta 1982an 12000 enpresak porrot egin zuten, historiako kopururik handiena. Funtsean thatcherismoak industriaren gainbeheraren tesia onartu zuen, zaharkiturik zegoen sektorea zela kontsideratuta enpresa errentagarrien eta produktiboek irauko zutela uste baitzuten. 1980 eta 1981 artean produktibitatea handitu egin zen nabariki (%5), kontuan hartu behar baita enplegua *outputak* baino gehiago jaitsi zela, eta errentagarriak ez ziren enpresa askok itxi egin behar izan zutela, gerora jarraitu zuen prozesua izanik; hala ere, *outputak* hazkundera fase batean sartu ziren 1982tik aurrera (Gamble, 1985: 193-194).

Era berean, 1979 eta 1980 artean tinko mantendu baziren ere, gastu murrizketa eta zergen jaitsiera ezin izan zen aurrera eraman, eta 1981ean enpresa batzuei

## Margaret Thatcherren gobernualdia (1979-1990): sistema neoliberalaren sorrera

diru-laguntzak eman behar izan zizkieten porrot ekonomikoek sistema hondora ez zezaten. Hori dela eta, 1981 eta 1983 artean zergak eta BPG per capitaren gastua gobernu laboristekin baino handiagoak izan ziren, eta ordura arte lortutako oreka fiskala hautsi eta zorra handitzen hasi zen (nahiz eta hurrengo urteetan murrizten joan zen). Gainera, enpresa askok estatuaren mende jarraitu zuten; pribatizazio-saio mugatuak 500 milioi libera eman zituen urteko. Horrek proiektu neoliberalaren aldekoen atsekabea eragin zuen, baita desindustrializazioak kaltetutako langileriarena ere. Egoerak kolokan jartzen bazuen ere, Thatcherrek masa-langabezia bere probetxurako erabiltzen jakin izan zuen, nazioarteko krisiari eta batez ere aurreko gobernuak egindako gestio txarrari egotzi baitzion ekonomiaren egoera kaskarra. 1980ko “*The lady’s not for turning*” diskurtsoan adierazi zuen legez, ez zegoen atzera egiterik: egindako sakrifizioak etorkizunean iritsiko ziren onuren nahitaezko baldintza bezala planteatu zituen, nahiz eta 1982an bere etorkizuna kinka larrian zegoela ematen zuen (Gamble, 1985: 195).

### 5.4.1. Malvinetako Gerraren papera

Azterturiko ondorio ekonomiko negatiboek 1982rako Thatcherren gobernuaren onarpen-maila gerraosteko edozein gobernuarena baino txikiagoa izatea eragin zuten: 1982rako Thatcher beraren onarpen-maila %25ekoa zen, eta bere kabinetearena %18koa. Proiektu neoliberalak Erresuma Batuan amaiera laidogarri bat izan behar zuela zirudien, baina gertakari batek egoera zeharo irauli eta hurrengo urteak erabat baldintzatu zituen: 1982ko apirilaren 2an hasi zen Malvinetako Gerrak. Argentinak Atlantikoaren hegoaldean inongo balio ekonomiko edo estrategikorik ez zuten irla horiek okupatu zituenean, Thatcherrek bere zori politikoari buelta emateko aukera ezin hobea ikusi zuen. Aurreko urteetan irlen kostu ekonomiko handiegia aldarrikatu bazuen ere, bertako garapenerako gastuak murriztuz eta armada-presentzia mugatuz, inbasioa gauzatzean jarreraz aldatu eta irlen subiranotasun britainiarra defendatzeko erabaki irmoa hartu zuen. Gobernua kritika zaparrada baten azpian egotetik, herrialde osoa (oposizioa ere bai) espiritu patriotiko baten baitan bateratzea lortu zuen Thatcherrek, gerraren bidez bere posizioa berretsiko zuen garaipena eskuratzeko (Klein, 2014: 185).

Eginiko apustuak etekinak ekarri zituen bizkor, hamar astetan argentinarrak garaitu eta eremuaren kontrola berreskuratu baitzuen Erresuma Batuak, 255 soldaduko heriotza pairatuz soilik. Gerra horrek galduriko Inperioaren loria-garaiak berreskuratu zituen nolabait, eta Thatcher gerra-heroi bat bezala tratatu zuten: lehen kritikoki Thatcher

izendatzeko erabiltzen zen *burdinazko dama* ezizena, orduz geroztik laudorio moduan erabiltzen hasi ziren. Espiritu patriotiko horri jarraiki, 1982ko Alderdi Kontserbadoreko mitinean Thatcherren “atzera egiten duen herrialdea izateari utzi diogu” esaldian betikotua, eraldaketa bera izan zuen onespren-mailak, galdeketen arabera %25etik %59ra pasa baitzen Malvinetako Gerraren ondorioz (Klein, 2014: 186), eta 1983an hauteskundeak irabazteko bidea ireki zuten, erreforma ekonomikoei bultzada handiagoa eman eta “thatcherismoaren urrezko epealdia” ireki zuena.

## **6. Thatcherian Golden Age**

1983tik 1987ra arte iraun zuen Margaret Thatcherren bigarren gobernualdian hazkunde ekonomiko izugarria izan zuen Britainia Handiak, proiektu neoliberallean sakontzeko politikak osoki gauzatuz *Thatcherian Golden Age* deituriko epea ireki zelarik. Nazioarteko hazkunde ekonomikoko fase batean kokatu behar dugu garai hau, Ronald Reaganek 1981ean hauteskundeak irabazi ostean ezarritako *supply-side economics* politikek gainontzeko herrialdeetan eragina izan baitzuten nazioarteko eskariaren hazkundearen bitartez.

### **6.1. Hazkunde ekonomikoa**

Iraultza thatcheristak bere gailurra jo zuen 1983 eta 1987 arteko epean, BPGaren batezbesteko hazkundea %4,4koa izan baitzen. Epe luzeko ekonomia-hazkundea lortzeko, eskaintzaren aldeko politika ekonomikoek aurrerapena izan zuten, eta britainiar ekonomiaren produktibitatea handitzea eta presio fiskala arintzea izan ziren xede nagusiak. 1984, 1985 eta 1986ko aurrekontuetan, eskaintza mesedetzeko hainbat neurri hartu ziren: inbertsioen gaineko zergak eta prestazio sozialen gastuak estaltzera bideratutako zergak abolitu egin ziren, eta sozietate-zergak eta etekinen gaineko zergak murriztu egin ziren. Aurrekontu horiek, gobernuaren xede nagusi zen erreforma fiskalari loturik egon ziren, 1987rako PFEZa %27ra jaitsi, eta errentarik altuenentzako zerga %60tik %40ra igaro baitzen. Produktibitatearen hazkundea ere gobernuaren xede nagusietako bat zen, eta iraultza thatcheristaren zutabe garrantzitsua bihurtu zen, epe luzean garapen ekonomikoa finkatzeko beharrezkoa. Gauzak horrela, 1973-1979 artean %1,2koa bazen ere, 1979-1987 artean %4,9ra pasa zen produktibitatea, 1. taulan ikus daitekeen bezala, Mendebaldeko hazkunde handiena. Hala ere, hazkunde horren atzean ez zen gobernuak planteaturiko aurrezte eta horretatik etorritako inbertsioa egon,

## Margaret Thatcherren gobernualdia (1979-1990): sistema neoliberalaren sorrera

produktibitate bideratutako inbertsioak murriztu egin baitziren (%16,8). Produktibitatea handitzeko arrazoien artean merkatuaren dinamikotasuna, lan eredu malguagoa eta teknologia berrien erabilera aipa daitezke (Glynn & Booth, 1996: 195) (Magazzino, 2010: 111).

<b>1. taula: Produktibitatearen nazioarteko alderaketa ehunekotan (1965-1987)</b>			
	<b>1965-1973</b>	<b>1973-1979</b>	<b>1979-1987</b>
<b>Erresuma Batua</b>	4,3	1,2	4,9
<b>Alemania</b>	5,4	4,3	2,3
<b>Estatu Batuak</b>	3,0	1,4	3,3
<b>Japonia</b>	11,4	5,5	5,1

Iturria: Magazzino (2010: 111).

Egoera ekonomiko ona bermatu zuten neurri hauek: lan-kostuak jaitsi egin ziren (teknologia berrien inportazioekin, era berean produktibitatea handitu zuena), eta enpresa-mozkinak, ondasun eta zerbitzuen eskaria, inbertsioak eta produkzio agregatua (%2,5) handitu egin ziren. Garai oparoa izan zen enpresentzat, inflazio egonkorreko testuinguru batean (%5 inguru), *outputa* %3,5 handitu zen batez beste, eta esportazioak %7 hazi, ordainketa-balantzaren saldoa positiboa izanik urte horietan. Industria sektorea %3 handitu zen, bere produktibitatea %4, eta sektoreko inbertsio eta esportazioak %6 areagotu ziren. Nahiz eta adierazle ekonomikoak onak izan, langabezia ez zen 3 milioiko langatik eta %10eko tasatik jaitsi bigarren agintaldian, eta ekonomia britainiarraren hazkundearen ahulgunea izan zen, produktibitatearen igoerak, inbertsioek eta etekinek zuzendu ez zutena. Gainera, *thatcherismoak* aldarrikatutako *trickle-down economics* delakoa ez zen gauzatu, enpresen irabaziak handiak izan ziren bitartean langileriaren bizi-maila eta soldaten maila jaitsi egin baitziren, batez ere kualifikatu gabekoena; erabateko langabezia bost familiatik batean ezarri zen (Albertson & Stepney, 2019: 322-323) (Magazzino, 2010: 95).

Presio fiskalaren murrizketa estatuaren parte-hartze ekonomikoaren arintzearekin batera burutu zen (gastu publikoa BPGaren %7,71 murriztu zen), nahiz eta sektore oso fokatuetan gauzatu, industriara bideratutako inbertsioetan batez ere (%2,2). Ikuspegi orokorrean diru-bilketa %2 jaitsi arren, zor publikoa %4,21 murriztea lortu zuen

gobernuak, pribatizazio masiboen bidez lorturiko gastu publikoaren jaitsieraren ondorio izan zen seinale. Era berean, jadanik lehen gobernualdian ahul geratu zen ongizate-estatuaren (*Welfare state*) murrizketarekin batera eman zen, esate baterako langabezia-prestazioak 1970eko hamarkadakoan %50 izatera igaro baitziren, sindikalismoaren gainbehera bati lotua egon zena (Magazzino, 2010: 114).

## **6.2. Pribatizazioen gailurra**

Lehen gobernualdian emandako pribatizazio-saioa bere puntu gorenera iritsi zen Thatcherren bigarren agintaldian. Geroz eta unitate ekonomiko gehiago merkatuaren dinamikan sartzeko, jadanik aurreko gobernualdian hasi zuen etxebizitza publikoen pribatizazioa jarraitu zuen, langileria Thatcherrek sortu nahi zuen “jabeen demokrazia” horren parte izan zedin. Epe horretan eman zitzaion bultzadarekin 1,25 milioi etxebizitza esku pribatuetara igaro ziren, eta estatuak 16 milioi libera inguru eskuratu zituen; langile ugari bankuetara jo zuten etxe horiek erosteko, eta zorpetze maila handitu egin zen. Hori dela eta, tirabirak izan ziren gobernuan bertan maileguen interes-tasen desgrabazioak mantendu ala igotzearen inguruan, batzuek tasak baxu mantentzea subsidio bezala ikusten baitzuten, urtean 7 milioi liberako kostua eragiten zuen zerbait. Hala ere, interes-tasak botoen eta lider politikoaren onarpen-mailaren faktore garrantzitsu bihurtu ziren (enplegua bezain garrantzitsua), eta horregatik ez zen hura igoko lukeen neurrien alde egin (Parker, 2004: 8).

Bestalde, enpresa publikoen eraispenak aurrera jarraitu zuen, estatuaren menpeko enpresak esku pribatuetara pasaz efizienteagoak bihurtu eta hazkunde ekonomikoa bermatuko zuelakoan. Bigarren gobernualdian biziki hazi zen sektore anitzetan osorik saldutako enpresen kopurua: British Telecom, British Gas, British Petroleum, Britoil, British Airways, British Aerospace, British Airport Authority, National Freight Consortium, Associated British Ports, Jaguar, Rover, Rolls-Royce, British Leyland, National Bus Company, British Sugar Corporation, British Steel, British Rail Hotels, Cable & Wireless, Amersham International eta Sealink Ferries. Lehen agintaldian 400 milioi libera eskuratu bazituen ere urteko, bigarreanean 5000 milioi libera eskuratu zituen urteko estatu-enpresen salmentagatik. Horren ondorioz, erdira jaitsi zen estatuak ekonomian zuen pisua eta 8 milioitik 3 milioira murriztu sektore publikoan lan egiten zuen langileen kopurua (BPGaren %10etik %5era pasa zen gastua). Gainera,

pribatizatutako enpresetako langileei haien enpresen akzioak erosteko proposatu zitzairen, eta horrela 9 milioi akziodun eratu ziren (Bolick, 1995: 540-542).

### **6.3. 1984 eta 1985 arteko meatzarien greba**

Gobernuak estatuaren mendeko enpresak errentagarri bihurtzeko proiektuarekin aurrera egin zuen, eta klima politiko-ekonomiko oparoan, indar nahikoa izan zuen galerak besterik ez zituzten meatzaritza-enpresen ixteak dekretatzeko. Horrek berehala meatzarien National Union of Mineworkers sindikatu boteretsuaren erantzuna ekarri zuen, 1984ko martxoaren 3an greba deialdia egin zuena. Arthur Scargill sindikalistaren gidaritzapean, grebalariek gabezia anitz eta errepresio handia jasan behar izan zituzten, eta, era berean ikatz-murrizketa handiak jazo ziren Britainia Handian. Sindikatua konbentzituta zegoen erauzketarik gabe estatuak ezingo ziola epe luzean grebari aurre egin, baina gobernuak 1983tik ikatz eta petrolio erreserba handiak metatu zituen, gerta zitekeena aurreikusita ekonomia nazionala eror ez zedin (Magazzino, 2010: 101).

Thatcherrentzat saio erabakigarria izan zen bere ikuspegia inposatzeko, eta grebalariek luzatutako proposamen guztiak alboratu zituen. Grebak ia urtebetez iraun zuen, eta estatuak bere indar errepresibo osoa erabili zuen protestak zanpatzeko, 8000 polizia-agente bakarrik helburu horretara dedikatuz (Klein, 2014: 187). Azkenean meatzaritza-langileen porrot izugarriarekin amaitu zen greba, eta laborismoa eta sindikatuen boterea biziki murrizteaz gain, langile mugimenduarentzako kolpe latza izan zen. Gobernuak argi utzi zuen bere bidean jarritako oztopo guztiak gaindituko zituela erreforma ekonomikoak burutzeko asmoz, eta langileen kexak entzun baino bere helburuak lortzeko jarrera irmoa aurkeztu zuen. Garaipen horren bidez eskubide sindikalak are gehiago murrizteko aukera izan zuten, edozein grebatan eragindako kalte materialen erantzule egin behar baitziren, eta enpresen erabakietan haien boterea mugatu zen (Gamble, 1994: 126).

Bestalde, erreforma ekonomikoak gauzatzeko bidea libre izateaz gain, aspalditik gainbeheran zegoen meatzaritza sektorearen inflexio-puntua izan zen, epe luzera bere eraispena suposatuko zuena. Datu batzuk eskaintzearen, 1975ean ikatz-sektorean 150000 langile aritzen baziren ere 125 milioi tona produzituz, 1991n 11000 langilek egiten zuten lan, 30 milioi tona produzituz; meatzaritza sektorean oro har 1967an 483 meategi bazeuden, 1987an 168 zeuden. Energia-iturrien eraldaketa bortitza gertatu zen



Thatcherren administrazioarekin, petrolioak, energia elektrikoak eta gasak hazkunde handia izan baitzuten. Nahiz eta kasu batzuetan inportatu egiten zuten, kostu txikiagoak izan zitzakeen bertan erauzteak baino, eta gainera gutxiago kutsatzen zuten (Magazzino, 2010: 102-103).

#### **6.4. *Big Bang*: Londres nazioarteko kapitalismo finantzarioaren erdigune**

Thatcherismoak bere eraldatze neoliberallean gauzaturiko beste mugarri bat 1986ko *Financial Services Act* dekretuaren bitartez City of Londoneko burtsan gauzatutako transformazioa izan zen. Finantza-sistema sendotzea luzaroan gobernuaren helburu garrantzitsua izan zen, nazioarteko inbertsoak hiriburura erakarriz aberastasunaren metaketa bilatu nahi baitzuten. Xede horiek burutzeko 1979ko kapital mugimenduen eta inbertsioen liberalizazioa izan zen lehen neurria, baina ez zituen esperotako onurak ekarri: 1983an Ingalaterrako Bankuak eginiko ikerketa baten arabera altxor-bonuen erosketen %5a eta atzerrian egindako inbertsioen %50a bakarrik gauzatzen baitziren Londresko Burtsatik. Citya nazioarteko fluxu finantzariotik kanpo zegoen, eta honen kausak thatcherismoak gehiegizko arautzean identifikatu zituen, bertan ezartzea oztopatu eta komisio handiak eragiten baitzituen (Mastrogiacomo, 2019: 24-25).

Egoera 1986ko *Financial Services Act* delakoan sektorea liberalizatuz argitu zen: kanpoko enpresa eta agenteei bertan ezartzen utziko zitzaien, akzio erosleen eta inbertsoreen aholkularien arteko banaketarekin amaitu zen, komisioen jaitsiera bat eragingo zen, eta informatika eta teknologia berrien erabilera finkatuko zen transakzioak azkarrago egiteko. Dekretuak berehalako eragina izan zuen, kapital kopuru handia eskuratu eta lehiakortasuna mantentzeko konpainia ugari fusionatu egin baitziren; era berean, atzerriko kapitalaren presentzia nabariki handitu zen, erreformen ostean Londresko Burtsako 300 sozietatetik 75ek jabego ez-britainiarra baitzuten. Transakzioen hazkundera izugarri handitu zen, 1985ean asteko negozio-bolumena 4,5 milioi dolarretakoa izatetik 1986an 7,4 milioitara pasa baitzen. FTSE 100, Londresko Burtsako 100 sozietate kapitalizatuenen indizea, %16 hazi zen urte bakarrean, eta 1991ra arte hazkunde jarraitua izan zuen, 1500 milioidun berri sortuz. 1986ko dekretuak benetako eztanda eragin zuen finantza-sisteman, *Big Bang* izenarekin ere ezaguna dena, eta Citya nazioarteko kapitalismo finantzarioaren punturik garrantzitsuena bihurtu zuen, New Yorkeko burtsarekin bakarrik aldera zitekeena (Mastrogiacomo, 2019: 26-27).

## 7. Kriaren mamuaren itzulera

Hazkunde ekonomiko horren bitartez 1987an Thatcherrek bere hirugarren gobernualdia baietsi zuen segidan, XX. mendeko luzeena bihurtuz. 1989 bitartean ekonomia-hazkundeak aurrera egin zuen: interes-tasa eta prezio baxuak zeuden, estatuaren diru-sarrerak handitu egin ziren, 1989an *per capita* BPGa 16000\$ ingurukoa zen (1980an 10000\$ ziren) eta langabezia-tasa %6,3ra jaitsi zen (1,6 milioi pertsona inguru), thatcherismoaren handicap handiena izan zena (Maynard, 1988: 127). Era berean, hori guztia zerga jaitsiera batekin gertatu zen, PFEZa %25era eta irabazien gaineko zerga %40ra igaro baitziren.


Hala ere, zenbait gertakarik egoera eraldatu eta 1989rako krisi berri baten arriskua ekarri zuten. Politika ekonomiko neoliberalerain betirako inflazioa saihestu zutela sinetsita, oreka fiskal zorrotza albo batera utzi eta gastu publikoa handitzen hasi ziren, eta 1987an bertan 7,5 bilioi liberatan igo zen gastu publikoa. Etxeen jabegoaren *boom*ak ere (desarautze eta pizgarriek babestua) zor pribatua BPGaren %73ra handitu zuen (1979an BPGaren %37 zen), batez ere *South East* aldean. Kriaren lehen zantzua 1987ko burtsa-kraka izan zen, nazioarteko finantzen hondoratzea eragin zuena. Horri erantzuteko britainiar gobernuak diru-jaulkipena biziki handitu zuen, eta Louvreko Akordioaren ondoren libera 3 markoko balioan (altuegia) ezartzeak nahitaez interes-tasak artifizialki baxu mantentzea eragin zuen eskaria mantentzeko, sostengaezina egin zuena britainiar diru-sistema. Politika horien eraginez 1987 eta 1988 artean Britainia Handira kapital mugimendu handia jazo zen, eta nazioarteko dibisa eskaria handitu (%40). Horrek, zerga jaitsierarekin loturik, kontsumo pertsonala areagotzea eragin zuen jadanik azkarregi hazten ari zen ekonomia batean (Albertson & Stepney, 2019: 322) (Gamble, 1994: 131).

1989rako krisia nabaria zen Erresuma Batuan, inflazio-tasa etengabe igotzen ari baitzen; horri aurre egiteko gobernuak liberaren interes-tasaren igotze progresiboa gauzatu zuen, %13ra urtarrean, %14ra maiatzan eta %15era urrian. Hala ere, inflazioak igotzen jarraitu zuen, eta 1990erako %10,5ean zegoen, lehen gobernualditik ezagutzen ez zena. Horren ondorioz, ordainketa-balantza desorekatu egin zen, 20 milioi libera esterlina inguru (BPGaren %4,4), enpresei lehiatzeko zailtasunak suertatu baitzitzaizkien egoera berriarekin (Magazzino, 2010: 122). Gainera, errenta altuenen eta baxuenen arteko

## Margaret Thatcherren gobernualdia (1979-1990): sistema neoliberalaren sorrera

arrakalak eta desberdintasun sozialek handitzen jarraitzen zuten (ikusi 2. grafikoa), sektorerik apalenen egoera zaildu zuena. 1979 eta 1990 artean britainiarren artean errenta-mailarik baxuena zuen %20-30ak ez zion hazkunde ekonomikoari etekinik atera: 1979an populazioaren %20 aberatsenak aberastasun nazionalaren %35, eta %20 pobreenak aberastasunaren %10 osatzen bazuen ere, 1990ean %20 aberatsenak aberastasunaren %43 biltzen zuen, eta %20 pobreenak aberastasunaren %6. 1979an populazioaren %1 aberatsenak batezbesteko diru-sarrerak 28 aldiz gainditzen bazituen ere, 1990an 70 aldiz gainditzen zituen; epe berean, pobrezia-atalasea %6,7tik %12ra, diru-sarrera baxuak zituzten bizitexeak %8tik %25era, eta batezbesteko diru-sarreraren %60ko soldata zuten langileak %13,4tik %22,2ra igaro ziren (Jenkins, 2000: 134-152).

### 2. grafikoa: Diru-sarreraren desberdintasunaren bilakaera (Giniren koefizientea)



Iturria: Jenkins (2000: 134).

Horrek guztiak, Thatcherren onespren-maila jaistea eragin eta alderdi *tory*aren barruan aurkakotasunak sortu zizkion. Gauzak horrela, bere lidergoa behin betiko ezbaian jarrita dimisioa aurkeztera behartu zuen erabakia *community charge* delakoa izan zen.

### 7.1. *Community charge* eta Thatcherren gainbehera

Ideologia neoliberalaren nagusigoan sinetsita, Thatcherrek bere proiektuaren adierazgarri bihurtu zen zerga berria aurkeztu zuen, *community charge* deiturikoa (*poll tax* bezala ere ezaguna). Zerga berri horrek herritar bakoitzari baliabide publiko berak eskuragai izateagatik zerga-kopuru berbera ezartzen zion britainiar herri bakoitzean, gizabanako bakoitzaren errenta edota egoera soziala kontuan hartu gabe. Ikuspuntu

ideologikoaren gailurra izan zen zerga hau, ez baitzuen inongo progresibotasunik edo proportzionaltasunik aitortzen, eta pertsona ororentzako betebeharrak bilatzen zituen (*one man-one tax*). Ikuskera ideologikoarekin loturik, zerga berri horrek lekuko administrazioek estatuaren karga batzuk onartu eta herri bakoitzaren errentagarritasuna bilatzea zuten xede, estatuak udalei emandako diru-laguntzak murriztu egin baitziren aldi berean (Bolick, 1995: 543).

1989an Eskozian eta 1990ean Gales eta Ingalaterran jarri zen indarrean *community charge*, eta hasieratik bertatik aurkakotasun handia izan zuen lurralde guztietan. Egoera ekonomiko kaskarreko testuinguruan, desobedientzia deialdiak gauzatu zituzten agente sozial anitzek zerga ez ordaintzeko, eta protestak (*poll tax riots* deiturikoak) zabaldu ziren britainiar bazter guztietan; Londresko 1990eko martxoko manifestazioa mende osoko handiena izan zen. Horren ondorioz, Thatcherrek alderdi barruan zuen babesa galdu eta bere lidergoa eztabaidatzen hasi ziren: 1989an bertan alderdiko presidentetza lehiatu zion Anthony Meyer-ek, eta azkenean azaroan berriro ere bere postua lehiatuta ikusi zuenean dimisioa aurkeztera behartuta ikusi zuen bere burua, Alderdi Kontserbadoreak jadanik beste hautagai baten apustua egin baitzuen. Hamaika urteren ondoren eta bidean Britainia Handiaren gizartea errotik aldatu eta gero, Thatcherren epea amaitu egin zen herrialdearen gidaritzan, John Major-ek bere lekua hartu zuelarik (Leurez, 1992: 632).

## **8. Thatcherismoa, benetako iraultza liberala?**

Thatcherismoak ekonomia britainiarra liberalismoaren eta *laissez faire* doktrinaren baitan eraldatzean, liberalismo olatu berri horren (neoliberalismoa deitua) eta jatorrizko liberalismoaren arteko ezberdintasunak bistakoak izan ziren. Estatuaren rola eraldaketan oso agerikoa suertatu zen diferentzia hori: alde batetik, 2. taulan ikus daitekeen bezala, Thatcherren gobernualdian estatuak ekonomian zuen parte-hartzea mugatu egin zen merkatuaren berezko funtzionamenduaren mesedetan; ideia liberal klasiko horri jarraiki, gastu publikoa murriztu egin zen BPGaren portzentaiari dagokionez (nahiz eta gastu totala handitu, ekonomia-hazkundearen ondorioz), eta zor publikoa eta oreka fiskala lortzeko defizit publikoa zeharo jaitsi ziren. Hala ere, lehen liberalek merkatu askearen logika babesten bazuten ere gizartearen oreka naturala lortzeko, ideologia neoliberalak horren bideragarritasuna ukatu eta marko hura

## Margaret Thatcherren gobernualdia (1979-1990): sistema neoliberalaren sorrera

babesteko estatuaren indar guztia erabiltzearen aldeko apustua egin zuen. Hori dela eta, thatcherismoak estatuaren pisuaren murrizketa aldarrikatuz merkatu askearen aldeko ekonomia bultzatu bazuen ere, logika kapitalista bermatzeko estatua izugarri sendotu zen, indarraren erabileran argiro islatu zena: Thatcherren gobernualdian ordena publikoa mantentzeko baliabideen igoera handia eman zen, liberal klasikoentzat onartezina (Gamble, 1994: 38-39).

<b>2. taula: Estatuak Thatcherren gobernualdian izandako bilakaeraren adierazle makroekonomiko nagusiak</b>				
	<b>Gastu publikoa (% BPG)</b>	<b>Gastu totala (bilioi liberatan)</b>	<b>Finkatutako zor publiko gordina (% BPG)</b>	<b>Defizit publikoa (% BPG)</b>
<b>1979</b>	45,13%	85,17	53%	1,57%
<b>1980</b>	47,62%	103,86	52,67%	1,07%
<b>1981</b>	51,19%	116,06	52,85%	1,98%
<b>1982</b>	50,74%	128,04	51,68%	0,58%
<b>1983</b>	50,37%	132,7	51,88%	0,69%
<b>1984</b>	50,26%	140,5	53,60%	1,12%
<b>1985</b>	48,69%	150,9	51,75%	1,26%
<b>1986</b>	44,63%	158,6	50,12%	0,60%
<b>1987</b>	42,66%	164,6	47,67%	0,91%
<b>1988</b>	40,26%	173,6	41,36%	0,81%
<b>1989</b>	39,67%	179,9	35,89%	-0,80%
<b>1990</b>	41,10%	200,9	33,25%	-0,57%

Iturria: Magazzino (2010: 148).

Adierazgarria da defentsa eta ordena publikoan eginiko gastua: defentsa-gastuei dagokionez, 32 bilioi libera inguruan zeuden 1978-1979an (BPGaren %4,5), eta hazkunde nabaria eman zen 1986ra arte, 40 bilioiko langa gainditu eta BPGaren %5a baino gehiagora iritsi zenean; hortik aurrera jaitsiera erlatiboa jazo zen, 36 bilioirekin BPGaren %4 inguruan geldituz. Ordena publikoaren gastuari dagokionez, 1978-1979an BPGaren %1,4a eta gastu totalaren %3,3a zen, 10 bilioi libera inguru; hala ere, beste edozein arlok baino hazkunde handiagoa izan zuen (batez beste %4,7 urtero), eta 1990erako BPGaren %2,2a eta gastu totalaren %5,5a zen, 20 bilioi liberaren bueltan (Crawford, Emmerson & Tetlow, 2009: 27-28). Estatuak merkatu askearen erakundeen

## **Margaret Thatcherren gobernualdia (1979-1990): sistema neoliberalaren sorrera**

babesa bere lehen tasun bihurtzean, iritzi publikoaren abegikortasunarekin batera, bere legitimitatea eratzeko oinarriak finkatu zituen. Behin oinarri horiek ezarrita, merkatuaren logika oztopatzen zuten interes, erakunde edo indibiduen aurka indarra erabiltzea zilegi eta justifikagarri bihurtu zen. Horrela, britainiar estatua ez zen jadanik bere eremutik harago hedatzen zen estatu keynestar ahula, ordena finko bat bermatzen zuen estatu indartsu bat baizik (Leurez, 1992: 617-618).

Horretaz gain, liberalismoaren printzipioen aurka zihoan beste elementu bat bistakoa izan zen Thatcherren gobernualdian, oligopolioen eraketa hain zuzen. Thatcherismoak kritika ugari jaso zituen enpresa publikoak privatizatzean oligopolio berriak eratzen ari zela leporatuta, kasu horretan sektore pribatukoak. Gobernuak Monopolio Batzordea ahuldu egin zuen, oligopolioen aurka borrokatzea baino, sektore pribatua handitu eta bere jarduera indartzea izan baitzen bere helburua. Hori dela eta, neoliberalismoak, tradizio liberalerako itzulera baino, sektore pribatua hauspotzera bideratutako sistema baten eraketa proposatu zuen (Gamble, 1994: 39-40).

## **9. Thatcherren legatua: inoiz joan ez den iraultza**

Thatcherren *There is no alternative* slogan politikoak eragin handia izan zuen 1980ko hamarkadatik aurrera britainiar eta europar politikan, europar neoliberalismoaren aitzindariak XXI. mendera arte luzatu den eraldaketa ekonomiko eta sozialerako bidea ireki baitzuen. Thatcherren gobernualdiarekin Bigarren Mundu Gerra ostean ezarritako estatu keynestarra behin betiko amaitu zen, eta berekin hasitako proiektu neoliberalak ideologia politiko ezberdinen gainera nagusitzea lortu zuen. Indibiduoan oinarritutako ikuspuntu sozial eta politikoa, merkatu askearen eta ekimen pribatuaren defentsa eta estatuaren rol ekonomikoa mugatzea bere legatuaren parte bihurtu ziren, eta Downing Streeten itzal iraunkorra utzi zuen.

Bere ondoren iritsi zen John Major kontserbadoreak, Maastrichteko Ituna sinatu eta *poll tax* eztabaidatsua alboratu bazituen ere, sistematikoagoa bihurtu zuen neurri neoliberalen aplikazioa Britainia Handian, eta funtsezkoa izan zen thatcherismoak Thatcher bera gabe politikan jarraitu eta proiektu neoliberalak finka zedin. Halakoa izan zen thatcherismoaren arrakasta, ezen 1997an boterera iritsi zen Tony Blair-ek, *laborismo berria* planteatzerakoan Thatcherren politika asko barneratu baitzituen.

## Margaret Thatcherren gobernualdia (1979-1990): sistema neoliberalaren sorrera

Horien artean koka ditzakegu merkatu finantzarioen desarautzea edota pribatizazioaren jarraipena, baita kanpo politikan izan zuen jarrera oldarkorra ere: Thatcherrek Malvinetako Gerran parte hartu zuen bezala, Blairek Afganistango Gerran eta Iraken inbasioan sortutako koalizioari babesa eman zion (Sanmartín, 2003: 46-47).

Thatcherren eragina uhartetik haraindi hedatu zen, eta 1980ko hamarkadatik aurrera Europako nazio gehienek politika neoliberalak gauzatu izan dituzte: inflazioa baxu mantentzea erakunde ezberdinen helburu garbia izan da, pribatizazio saio orokor bat eman da alde guztietan eta estatuaren rola ekonomian murriztu egin da, nahiz eta aldi berean sektore pribatua babesteko oztopoen aurka bere indarra erabili duen. Thatcherren eraginaren zabaltzea epe ezberdinetan jazo zen: François Mitterrand-ek Frantzian 1981ean, Helmut Kohl-ek Alemanian 1982an, Silvio Berlusconi-k Italian 1994an eta José María Aznar-ek Espainian 1996ean, politika thatcheristetaranzko jira gauzatu zuten. Gainera, Europar Batasunak tesi neoliberalak barneratu egin zituen luzaroan: Batasunera sartzeko herrialdeek defizit eta gastu publikoa mugatu, oreka fiskala bilatu eta sektore publikoa murriztu behar izan zuten, lehen mailako egitura politikoan barneratzeko neoliberalismoa asimilatzea nahitaezkoa izanik (Sosa, 2011: 63).

## 10. Ondorioak

Margaret Thatcherren gobernualdiak behin betiko markatu zuen Erresuma Batuen historia, herrialdearen egitura ekonomikoa errotik eraldatu baitzuen. *Burdinazko damak* herrialdeak gerraosteko garaian zituen arazoei irtenbidea eman zion aldarrikatutako doktrina neoliberalaren baitan; bere politiken bitartez britainiar gainbeheraren (*british decline*) irudia alboratu eta Erresuma Batua berriro ere nazioartean herrialde lehiatsu bezala azaldu zen. Malvinetako Gerrak eragindako efektuaz gain, eraldaketa ekonomikoak berebiziko garrantzia izan zuen prozesu horretan, bigarren gobernualditik finkaturiko hazkunde ekonomiko indartsu eta luzeak 1970eko hamarkadan izandako geldialdiarekin amaitu baitzuen.

1979an bertan aplikatu ziren neurri neoliberalak, inflazio altua jaitsi eta zerga zuzenen murrizketa bat bilatu zutenak pribatizazio (mugatu) eta liberalizazioaren testuinguruan, etorkizunerako bidea sendo markatu zuten. 1983rako inflazio-tasa %4,3koa bazen ere, adierazle ekonomiko gehienak ez ziren esperotakoak izan, proiektu neoliberalak kolokan

## Margaret Thatcherren gobernualdia (1979-1990): sistema neoliberalaren sorrera

jarri zuena; 1982tik aurrera bakarrik hasi zen britainiar ekonomia berreskuratu eta hazkundera finkatzen. 1983tik aurrera hasi zen *Thatcherian Golden Agea*, batez beste BPGaren %4,4ko hazkundera bermatu zuena, doktrina neoliberalaren aplikazioaren puntu gorena izan zen. Ideologiak bere oinarrian zituen neurri gehienak indarrean jarri zituen gobernuak: zerga anitzen jaitsiera, sektore ezberdinen liberalizazioa, pribatizazio masiboak... neoliberalizazio prozesuaren arrakasta suposatu zuena. Alor horretan, adierazle ekonomiko asko onak izan baziren ere (produktibitatea kasu), desindustrializazioa bere gailurrera iristeaz gain, proiektu neoliberalak ez zuten gizarte osoarentzako oparotasun-maila berbera bermatu, desberdintasun sozialak handitu eta sektore apalenen bizi-mailak behera egin baitzuen. Ondorioz, neoliberalismoak aldarrikatzen zuen aberastasun akumulazioa eta honetatiko gizarteko sektore guztien mesedetzea kolokan jarri zuen Thatcherren gobernualdiak.

Bestalde, indibidualismoa thatcherismoaren elementu zentrala izanik, estatuaren rola eraldatzea gobernuaren ekintzarik nabarientakoa izan zen. Hori dela eta, oreka fiskala lortu eta zor publikoa mugatzeko, estatuak burututako gastuak murriztu eta honek eskain zezakeen gizarte-babesa zeharo gutxitzea izan zen Thatcherren helburua. Horrela, lehen estatuaren ardurapean zeuden neurri ekonomiko eta sozialak merkatuaren berezko funtzionamenduaren esku geratzen joan ziren; are gehiago, defentsa eta ordena publikoan eginiko gastuaren hazkundera estatuaren funtzioen birdimentsionatzearen zantzu garbia izan zen, merkatuaren dinamika bermatzea bihurtu baitzen estatuaren eginkizun nagusia, sindikatuen aurkako borrokan oso nabaria egin zena. Hori dela eta, thatcherismoak britainiar estatua bera eraldatu zuen, merkatuaren dinamika bermatzeko organo bihurtuta neoliberalismoak denboran zehar irautea ahalbidetu zuena.

Gauzak horrela, iraultza thatcheristak indarrean dagoen sistema ekonomiko eta politikoaren funtsak osatzea lortu du, nazioarteko kontsentsua eratzera iritsi arte. Britainia Handiaz gain herrialde ezberdinetako gizarteak bere baitan eraldatu egin ditu, bai ekonomikoki eta baita pentsaera aldetik ere, indibidua geroz eta gehiago gizarte garaikidearen oinarria izatera iritsiz. Hori dela eta, neoliberalismoa egungo proiektu ideologikorik arrakastatsuenetarikoa bihurtu zuen thatcherismoak, merkatuaren arrazionaltasuna esfera publiko eta pribatuan barneratzea lortu baitzuen.



## 11. Bibliografia

- Ahedo, Igor, eta Telleria, Imanol. (2020). “Neoliberalismo”, in Abellán, Joaquín; Antón, Joan; Mellón, Joan Antón, eta Torrens, Xavier. *Ideologías y movimientos políticos contemporáneos (4. arg.)*, 370-420. Madril: Editorial Tecnos.
- Albarracín, Jesús; Anisi, David; Esteve Mora, Fernando; Gonzalez Calvet, Josep; Martin Seco, Juan Francisco; Montes, Pedro; Muñoz de Bustillo, Rafael; Roca Jusmet, Jordi, eta Rodriguez Cabrero, Gregorio. (1993). *La larga noche neoliberal: Política económica de los 80*. Madril: Editorial Icaria.
- Albertson, Kevin, eta Stepney, Paul. (2019). “1979 and all that: a 40-year reassessment of Margaret Thatcher’s legacy on her own terms”, *Cambridge Journal of Economics* 44, 319-342.
- Bolick, Clint. (1995). “Thatcher’s Revolution: Deregulation and Political Transformation”, *Yale Journal on Regulation* 12, 527-548.
- Champroux, Nathalie, eta Sowels, Nicholas. (2015). “The Monetary and Fiscal Policies of Early Thatcherism and the Legacy of the Medium Term Financial Strategy”, *Observatoire de la société britannique* 17, 135-161.
- Cook, Chris, eta Stevenson, John. (1996). *Longman Companion to Britain Since 1945*. London: Pearson.
- Crawford, Rowena; Emmerson, Carl, eta Tetlow, Gemma. (2009). “A survey of public spending in the UK”, *Institute for Fiscal Studies* 43, 1-49.
- Morgan, Kenneth. (2017). “Britain in the Seventies: Our Unfinest Hour? The United Kingdom and the crisis in the 1970s”, *French Journal of British Studies* 22, 1-16.
- Gamble, Andrew. (1985). “The Thatcher Government”, in *Britain in Decline: Economic Policy, Political Strategy and the British State* (2. arg.). New York: Red Globe Press.
- Gamble, Andrew. (1994). *The Free Economy and the Strong State: The Politics of Thatcherism*. Londres: Palgrave.
- Glynn, Sean, eta Booth, Alan. (1996). *Modern Britain: An Economic and Social History*. Londres: Routledge.

## Margaret Thatcherren gobernualdia (1979-1990): sistema neoliberalaren sorrera

- Jenkins, Stephen. (2000). "Trends in the UK Income Distribution", in Hauser, Richard, eta Becker, Irene. *The Personal Distribution of Income in an International Perspective*, 129-157. Londres: Springer.
- Kitson, Michael, eta Michie, Jonathan. (1996). "Britain's industrial performance since 1960: underinvestment and relative decline", *ESRC Centre for Business Research, University of Cambridge Working Paper* 14, 1-24.
- Klein, Naomi. (2014). *La doctrina del shock* (1. arg.). Bartzelona: Booket Paidós.
- Leurez, Jacques. (1992). "El legado del thatcherismo en Gran Bretaña", *Foro Internacional* 5, 617-643.
- Maddison, Angus. (1997). *La economía mundial en el siglo XX. Rendimiento y política en Asia, América Latina, la URSS y los países de la OCDE*. Madril: Fondo de Cultura Económica.
- Magazzino, Cosimo. (2010). *La politica economica di Margaret Thatcher*. Erroma: Franco Angeli.
- Mastrogiacomo, Vito. (2019). *Il Regno Unito di Margaret Thatcher: le politiche economiche e il "Big Bang" finanziario*. Erroma: LUISS.
- Maynard, Geoffrey. (1988). *The economy under Mrs. Thatcher*. New York: Blackwell.
- Oliver, Michael J., eta Pemberton, Hugh. (2006). "UK economic policy in the 1960s and 1970s and the challenge to learning", *XIV International Economic History Congress, International Economic History Association*, 7-46.
- Parker, David. (2004). "The UK's privatisation experiment: the passage of time permits a sober assessment", *CEsifo working paper* 1126, 3-42.
- Sanmartín, Israel. (2003). "La 'New Right' en los años 80 y 90", *Historia Actual On Line* 1, 39-53. <https://historia-actual.org/Publicaciones/index.php/hao/article/view/7>, 2021eko maiatzaren 12an kontsultatua.
- Segura, Julio. (2013). "Munduko ekonomia 1973 eta XXI. mendearen artean: urrezko hazkundearen azkena" in Comín, Francisco; Hernández, Mauro, eta Llopis, Enrique. *Munduaren historia ekonomikoa. X-XX. mendeak*, 391-432. Euskal Herriko Unibertsitatea: Argitalpen Zerbitzua.

**Margaret Thatcherren gobernaldia (1979-1990): sistema neoliberalaren sorrera**

- Sosa, Samuel. (2011). “Otro mundo es posible: crítica del pensamiento neoliberal y su visión universalista y lineal de las relaciones internacionales y el sistema mundial”, *Revista Nacional Autónoma de México* 214, 55-86.
- Thatcher, Margaret. (1995). “La némesis del laboralismo”, in *El camino hacia el poder*, 384-398. Madril: Aguilar.